

**SAN SEBASTIÁN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA, SAREN  
WEBGUNEAN ESPAZIOAK LAGATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO  
LIZITAZIOAREN ESLEIPENA BERTAN BEHERA UZTEN DUEN EBAZPENA**

2015eko abenduaren 9an Donostia helburu turistikoan ostatu plazak erreserbatzeko on line sistema bat (erreserba motorra) ezartzeko SAN SEBASTIÁN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA, SAREN (aurrerantzean, DONOSTIA TURISMOA) webgunean espazioak lagatzeko zerbitzua kontratatzeke lizitazioaren iragarkia argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, bai eta erakunde horren kontratugilearen profilean ere.

Proposamenak aurkezteko epea 2015eko abenduaren 24an bukatu zen eta 3 enpresak aurkeztu zuten beren proposamena: HOTELBEDS, SLU, BOOKING.COM BV eta EQUINOCCIO VIAJES, SA.

2016ko otsailaren 12an, negoziazio-fasea egiaztatu eta gero, langile teknikoek aurkeztutako proposamenen zerrenda helarazi zioten Kontratazio Organoari, BOOKING.COM BV-ren proposamena identifikatuz ekonomikoki onuragarriena zen eskaintza gisa.

Hori ikusita, eta BOOKING.COM BV-ri lizitazioaren Ekonomia eta Administrazio Klausulen eta Baldintza Teknikoen Orriko 17. Klausulan zehaztutako dokumentazioa aurkez zezan eskatu eta gero eta aipatuak eskakizun hori behar bezala bete eta gero, 2016ko martxoaren 29an Kontratazio Organoak ondoko erabakia hartu zuen: Donostia helburu turistikoan ostatu plazak erreserbatzeko on line sistema bat (erreserba motorra) ezartzeko DONOSTIA TURISMOAREN webgunean espazioak lagatzeko zerbitzuaren kontratua BOOKING.COM BV-ri esleitzea.

2016ko apirilaren 19an DONOSTIA TURISMOAK eta BOOKING.COM BV-k, beren ardurapekoak ez ziren arrazoiak zirela eta kontratua Ekonomia eta Administrazio Klausulen eta Baldintza Teknikoen Orriko 18. Klausulan zehaztutako epean gauzatzea ezinezkoa izango zela ikusita, Donostia helburu turistikoan ostatu plazak erreserbatzeko on line sistema bat (erreserba motorra) ezartzeko DONOSTIA TURISMOAREN webgunean

espazioak lagatzeko zerbitzuaren kontratua gauzatzeko epea luzatzea adostu zuten. Horretarako, 15 egun balioduneko epea gehitu zitzaion lizitazioa arautzen duen Administrazio Klausulen eta Baldintza Teknikoen Orriko 18. Klausulan zehaztutako epeari. Ondoren, 2016ko maiatzaren 10ean, kontratua gauzatzeko epea bigarrenez luzatzea adostu zen.

Kontratua gauzatzeko adostutako epe berri hori amaituta eta BOOKING.COM BV-k kontratua gauzatzeari behin eta berriz uko egiten ziola ikusita, 2016ko ekainaren 1ean DONOSTIA TURISMOAK azken eskaera bidali zuen, kontratuaren gauzatea eskatuz. Erantzunik jaso ez denez, BOOKING.COM BV-ren ardurapeko arrazoiak direla eta kontratua adostutako epearen barruan gauzatu ez dela ulertuta eta aipatu Orriko 18. Klausulak dioenari jarraiki, DONOSTIA TURISMOAK Ekonomia eta Administrazio Klausulen eta Baldintza Teknikoen Orriko 17. Klausulan zehaztutako dokumentazioa aurkez dezan eska diezaioke sailkapeneko hurrengo lizitatzaileri.

Aurrekoa ikusita, Kontratazio Organoak

#### ERABAKI DU

Lehena.- BOOKING.COM BV-ren alde egindako Donostia helburu turistikoan ostatu plazak erreserbatzeko on line sistema bat (erreserba motorra) ezartzeko DONOSTIA TURISMOAREN webgunean espazioak lagatzeko zerbitzuaren kontratuaren esleipena bertan behera uztea, BOOKING.COM BV-ren ardurapeko zioen ondorioz kontratua zehaztutako epearen barruan gauzatu ez delako eta, ondorioz, bere proposamena erretiratu egin duela interpretatuz.

Bigarrena.- Eskaintzen sailkapenean bigarren lekuan ezarritako lizitatzaileri, hau da, HOTELBEDS, SLU-ri eskatzea lizitazioa arautzen duen Ekonomia eta Administrazio Klausulen eta Baldintza Teknikoen Orriko 17. Klausulan zehaztutako dokumentazioa aurkez dezan 10 egun balioduneko epearen barruan.

Hirugarrena.- Ebazpen hau lizitzaile guztiei jakinaraztea, zehaztu duten lehentasunezko bitartekoa erabiliz.

Donostian, 2016ko ekainaren 16an.



Kontratazio Organoaren izenean

Eneko Goia Laso jauna

